



- Aurreko fitxa batean [[ehunekoak \(I\)](#)], ehunekoen adierazpidearen sintaxia izan genuen aztergai:

nola deklinatu (mugatuan/mugagabeen),
aditza nola jokatu (singularrean/pluralean),

...

- Fitxa honetan, ehunekoa dugu berriro hizpide, haren beste alderdi batzuk jorratu ditugu baina:

- hiztegia,
- ortotipografia,
- estiloa eta
- fraseologia.



• ***Ehuneko, portzentaje ala portzentaia?***

— *Hiztegi batuan eta Euskaltzaindiaren hiztegian lehen bi izenak baino ez daude jasota: ehuneko eta portzentaje.*

— *Hiztegi batuak, bestalde, xehetasun hau dakarkigu portzentaje hitzari buruz:*

portzentaje iz. h. ehuneko

[h. Hobe (forma hobetsia ondokoa da)]

— **Hau da, euskara batuan *ehuneko* hitza erabiltzea hobesten du Euskaltzaindiak.**

* **portzentaia**



• ***Ehuneko handi bat ala ehuneko altu bat?***

—Oro har, *handi* eta *txiki* izenondoak erabiltzen dira *ehuneko* izena kualifikatzeko.

- Ezkontzen **ehuneko handi bat** talde horietakoa da.
- Lagileen **ehuneko handi batek** aldi baterako kontratua du.
- Ehiztariak hegazti- eta ugaztun-espezieen **ehuneko txiki batean** kontzentratzen dira.
- Estatu Batuetako konpainia handiek enplegu totalaren **ehuneko txiki bat** hartzen dute.



• % 5 ala %5? Alegia, utzi behar da tarterik ikurraren eta zenbakiaren artean?

—Auzi honi buruz ez dago adostasunik euskaraz. Estilo-liburu batzuetan, hitzez edo adibidez, tartea uztea gomendatzen edo iradokitzen da, eta beste batzuetan, berriz, tarterik gabe idaztea.

• [+ tartea]

- [Albiste testu bikainak \(eitb\): 4.1.5. atala \[adibideak\]](#)
- [Eusko Legebiltzarra: idazkera-arauak \(Kopuruak; 2. Zenbakiz idazteko kasuak; Sinbolo matematikoekin doazenak\) \[adibideak\]](#)
- [EIMA: Ortotipografia \(45. or.\)](#)

• [- tartea]

- [Berria: Estilo liburua \(Ortotipografia; Ehunekoak eta milakoak\) \[adibideak\]](#)
- [Iberdrola: estilo liburua \(3.5.3. Ehunekoak; 43. or.\)](#)
- [IVAPeko estilo-liburua \(Ehunekoak; 105. or.\)](#)

—ISO arauak eta Nazioarteko SI sistemak ikurra eta zifra bananduta idaztea gomendaten dute.

—UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak, EIMAREN irizpideari jarraituz, ikurraren eta zenbakiaren artean hutsunea uztea gomendatzen du: % 5.



- **% 5 ala %5? Alegia, utzi behar da tarterik ikurraren eta zenbakiaren artean?**

OHARRA

Ordenagailuz idatzitako testuetan ikurra eta zenbakia beti elkarren alboan egon daitezten —alegia, elkarrengandik banantzea saihesteko, bata lerro baten bukaeran eta bestea hurrengoaren hasieran suertatu direlako— *zuriune zatiezina* edo *tarte zatiezina** deritzon karakterea balia dezakegu.

- Microsoft Word (MAC eta Windows)

-Txertatu › Ikurrak › Karaktere bereziak › zuriune zatiezina

- LibreOffice Writer

- Txertatu › Formatu-marka › Tarte zatiezina

* Gaztelaniaz, "espacio de no separación".
Frantsesez, "espace insécable"



• **Ehuneko berrogei, ehuneko 40 ala % berrogei?**

—Lehen bi idazkerak (*ehuneko berrogei* eta *ehuneko 40*) zuzenak dira, eta maiz erabiltzen dira testu idatzietan —ISO arauak *ehuneko 40* gisako idazkera onartzen du, baina ikurrezkoa (% 40) hobesten—.

- Pertsonen **ehuneko bostek edo hamarrek**, hor nonbait, zerbait ondo samar egin dezake.
- Aire-espazio islatzailea bero-transmisioaren azaleraren **ehuneko 80** da, eta listoi bertikalak, ordea, **ehuneko 20** osatzen du.

—Nolanahi ere, paragrafoaren hasieran edo puntuaren ostean ikurra ez baizik hitza erabiltzea gomendatzen da:

- Aprobetxamenduaren % 10eko lurzorua eman beharko diote administrazioari. **Ehuneko hamar** hori, nolanahi ere, gehienekoa... (* ...administrazioari. % 10 hori...)

— Hirugarren idazkera (% *berrogei*) ez da onartzen:

- *Populazio orokorraren % **bik** diabetesa du.

Adibideak esaldi moldatuak dira, [EHUskaratuak corpus](#)etik hartuak.



- **Gizonezkoen %a erakusten du ala gizonezkoen ehunekoa erakusten du?**

— Testu barruan, eta zenbakirik lagun izan gabe, ez da erabili behar %
ikurra *ehuneko* izenaren orde:

- Grafikoaren beheko ardatzak gizonezkoen **ehunekoa** erakusten du ezkerrean, eta emakumezkoen **ehunekoa**, eskuinean.

- Ohikoa izaten da saiakuntzaren emaitzak **ehunekotan** ematea.

- * Grafikoaren beheko ardatzak gizonezkoen **%a** erakusten du ezkerrean, eta emakumezkoen **%a**, eskuinean.

- * Ohikoa izaten da saiakuntzaren emaitzak **%tan** ematea.

- **Ehuneko negatiboak (-% 3 ala % -3?)**

“Euskaraz zeinurik gabeko sinbolo osoa % 3 denez, EIMAREN proposamena da -% 3 idatzi eta «minus ehuneko hiru» irakurtzea. Dena dela, minus zeinua eta % unitate-sinboloa elkarren alboan idatzi behar dira, hutsarterik gabe.” (EIMA)

[EIMA: Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendiak \(89. orrialdea\)](#)



[Berria egunkariaren estilo-liburuan](#) eta UPV/EHUko [EHULKU](#) kontsulta-zerbitzuan proposamen bera egin da.

- Proposamen horri jarraituz, ± zeinua daramaten ehunekoak ±% 5 idatziko ditugu, eta «plus-minus ehuneko bost» irakurriko.



- **% 50 - % 65 handitu da, ala % 50-65 handitu da?**

—ISO arauak eta Nazioarteko SI sistemak testu zientifiko-teknikoetan ikurra errepikatzea gomendatzen dute gaizki-ulertuak saihesteko. Gomendioak gomendio, idazkera bat zein bestea ikus dezakegu mota guztietako testuetan:

- Gantzak egiten duen ekarpena **%80 - %90ekoa** izatera irits daiteke.
- (...) indar maximoaren **%15 - %30etik** beherako erresistentzietan ezartzen dute.
- Intentsitateak lehiaketako abiaduraren **%90 - %95 bitartekoak** izango dira.
- Balje-k **% 20 eta % 30 bitarteko** murrizketak proposatzen du.
- Ale lehor baten hezetasun-edukia **% 6-8** izan ohi da.
- Proporzio hori % 12ra iritsi zen, eta geroago **% 15-20ra**.
- Orain arte fabrikatu izan diren panelek **% 13-20 bitarteko** errendimenduak dituzte.
- Gizakiaren kasuan, **% 10 eta 12 bitarteko** ur-galera muga hilgarritik gertu egongo litzateke.

—Ikurra (%) ez baizik izena (*ehuneko*) erabili den adibideetan ez dugu aurkitu errepikatuta *ehuneko* hitza:

- Sabaiko bero-irabazia etxearen hozte-kargaren **ehuneko 15-25** ingurukoa da.
- Erradiazio-hesiek aire girotuaren kostuen **ehuneko 2-10** gutxituko lukete.



• Fraseologia-zipriztin batzuk

- Mineralaren azalak argi erasotzailearen **zer ehuneko** islatzen duen neurtzen du erreflektantziak.
(*...**zein** ehuneko isalatzen...)
- **Zer ehuneko** aldatuko da masa-fluxua?
(*Zer ehunekotan...)
- Kalkulatu **ehuneko zenbat** txikitzen den bero-transferentzia.
(*...ehuneko zenbatean...)
- Eraikinen bidez finkatutako lurzorua **ehuneko zenbat** den zehaztu beharko da.
- E5 nahasketarekin **% 3** txikitzen dira CO₂-emisioak.
(* ...% 3**an** txikitzen dira...)
- Biodiesela erretzean, CO₂- eta CO-emisioak **%50-75** txikiagoak dira dieselenak baino.
(* ... %50-75**ean** txikiagoak dira ...)
- Mahats-muztioak **% 80 ur** baino gehiago du eta **% 10-18 glukosa**.
(Mahats-muztioaren % 80 baino gehiago ura da, eta % 10-18, glukosa.)
- E20 erregaia **% 80 dieselez** eta **% 20 bioerregaiz** osatua dago.
(E20 erregaia % 80 diesela da, eta 5 20 bioerregaia.)